

Jo ta ke / Non Stop (Sin descanso)

Ahantzuraren paisaiarako espedizioa

IRENE ELORZA

Donostia Zinemaldiko Ikusmira Berriak programan parte hartu zuen *Jo ta ke* bideo-entseguak 2019an, eta, urtebete beranduago, Zinemira sailean estreinatuko da. Gaur ikusi ahal izango da Aitziber Olaskoaga zinemagile getxoztarraren film laburra, Principe aretoan. Olaskoaga artista bisuala da, *La sonrisa telefónica* film ertainaren egilea eta *Faux Guide* edo *Al Nervión* bezalako film kolektiboetako parte-hartzailea.

Jo ta ke, bere azken lan honek, Negu Gorriak taldeak 1990ean Herrera de la Mancha segurtasun goreneko espetxearen aurrean egin zuen lehenbiziko kontzertua eta ondoren argitaratutako VHSa du abiapuntu. Olaskoaga nerabea zen garai hartan eta bere nortasun politikoaren susperraldian berebiziko garrantzia izan omen zuen ekimen hark. Materialaren gaineko eskubideak ukatzen zaizkionean hasten da bizkaitarraren bidaia zinematografikoa. "Ezintasun

ugarari egon dira proiektuan", azaldu du egileak, "filmaren ardatza hori da: badirudi bizi izan dugun historiagatik-edo asko kostatzen zaigula atzera begiratzea eta gure bizipenen berrirakurketa egitea".

Memoriaren eta isiltasunaren arteko harremanean sakontzen du, beraz, Aitziber Olaskoagak: "Desorosoa da, gutxienez hori bizi izan dut proiektu honetan, baina filma ausartzen da atzera begiratzea eta erakusten du posible dela eta guziok daukagula ahalmena". Ahantzuraren paisaiaren berreraikuntza horretan proiektuak izaera propioa hartu zuen, nahiz eta egileak bere esperientziatik abiatu. "Beste zerbait bilakatu da", aitortzen du Olaskoagak, "eta interesgarria iruditzen zait beste herrietan erakusten denean hango pertsonen erreakzioa zein izango den ikustea; espero dut askok ulertzea eta zirrara sorraztea".

Erantzunik ez

Filmaren bidez, zuzendariak zuzeneko kontakizuna egiten du bere esnaerari



José Luis Rebordinos, Aitziber Olaskoaga eta Maddi Barber, iaz, Ikusmira Berriak programaren aurkezpenean.

PABLO GÓMEZ

eta bilaketari buruz, ezker abertzalearen diskurtsoari buruzko oroitzapenak eta abar jasota. Nazio-identitatearen eraikuntzari eta aberriaren eta abertzaletasunaren arteko loturari buruz hausnarketa planteatzen du *Jo ta ke* filmak. "Bilaketa horrek, aurrera egin behar horrek, espero ez dituzun leku askotatik eramaten zai-

tu", adierazi du sortzaileak. Prozesu guztia "oso organikoa" izan dela ere azaldu du, bidean aurkitzen zituen paisaia, pertsona, gertaera eta gairontzekoak integratuz joan baitzen hasieratik.

Filmaketa talde txiki batek (Itziar Otxoa, Maddi Barber, Pilar Monseil, eta Aitziber Olaskoaga berak) bi-

laketa luze bati ekingo dio, bi nortasun nazional kontrajarriaren arteko arrailak aurkitu nahian. Ezezkoekin eta isiltasunarekin erantzungo diete behin eta berriz. Erantzunik gabeko bidaia bat. "Erantzunik ez dago, ez nituen espero aurkitzea; filmak planteatzen dituen galderen erantzunak norberak bilatu behar ditu".

f t

: Zinemaldiko informazio guztia
www.naiz.eus
naiz: